

Laguntzaileak

Opus Deiren laguntzaileak, hezkuntza eta asistentzi ekintzak, baita sustapen kultural eta sozialekoak ere aurrera eramaten laguntzen duten gizon eta emakumeak dira. Prelatutzako kideekin batera dihardute, Prelatutzaren kide izan gabe.

2004 Mar 2

Laguntzaileek ekimen horietan parte har dezakete batez ere otoitzaren bitartez, eta beren lanaren edo diru laguntzaren bidez ere bai. Elizak

ondasun espiritualak ematen die
Opus Deiri laguntzen diotenei:
urteko data jakin batzuetan
induljentzia batzuk lor ditzakete,
Elizak ezarritako baldintzak beteta,
eta laguntzaile direnez dituzten
obligazioak, debozioz, berritzen
badituzte. Prelatutzak eskaintzen
die, gainera, kide guztien otoitzaren
gogozko laguntza eta, nahi izanez
gero, heziera bideetan parte hartzeko
aukera: erretiro egunak, zirkuluak
etab.

Laguntzaile izateko ez da bokazio
berezirik behar. Gehienetan,
laguntzaileak Opus Deiko kideen
ahaide, adiskide, lagun edo
auzokoengandik datoz; sortzen dira
ere San Josemariari jaiera diotenen
edo prelatutzaren apostolutza
lanetan parte hartzen dutenengan;
eta Opus Deiko kideek sortzen
dituzten egintza apostolikoek
bitartez egiten den sustapen
sozialean interesa dutenen artean

ere. Nazio bakoitzeko Prelatutzako bikarioak laguntzaile izendatzen du norbait Opus Deiko kide baten proposamena onartuz.

Opus Deiko laguntzaileen artean, katolikoak ez direnak ez ezik, kristauak ez direnak ere badaude: lutertarrak, juduak, musulmanak, budistak etab. Fedegabeko gizon eta emakumeak ere bai, edo erlijiorik ez dutenak. (berria) Gizartearen alde Opus Deiko kideek, beste hiritar batzuekin batera, sustatzen eta aurrera eramaten dituzten hainbat ekimenetan –denontzat irekiak– parte hartzeak elkartzen ditu.

Opus Deiren heziera bideak hartzen dituzten laguntzaileek beren gogo bizitzan sakontzeko laguntza aurkitzen dute, eta beren kristau sinesmenari dagokion lekukotasuna –pertsonala, ez taldekoa– emateko. Heziera honek otoitzera, sakramentuetara, Ama

Birjinarenganako jaierara bultzatzen die. Prelatutzak eskaintzen duen espirituaren ezaugarri berezia Aita Santua eta Gotzainak egitez maitatzea da.

Pertsona askok ikasten dute Opus Deiren espirituaren bitartez lan arrunta, familia eta gizartearen aldeko eginbeharrak santutzen.

Erlijioso elkarteak ere Opus Deiren laguntzaile izendatuak izan daitezke. Elkarte hauek –gaur egun zenbait ehuneko– prelatutzaren apostolutza lanei laguntzen diete beren eguneroko otoitzaren bitartez.